

SARRERA

Startinnovan elkarte bat sortzeko eta bakoitzak dituen ideiak aurrera eramateko kontuan hartu beharreko atalak ikasi ondoren, proiektu bat pentsatu eta lanari ekin zaio.

Idea hau osotasun batera heltzeko elkarrekin izango dituen ezaugarriak atalez atal ezagutzea eta horrek izango dituen abantaila eta desabantailak aurreikustea garrantzitsua da.

Azken urte hauetan teknologiak aurrera pausu handia egin du, eta hori aprobetxatuz poltsa bat sortzea izan dugu helburutzat. Poltsak led argiak izango ditu bertan dauden gauzak hobeto ikusteko eta hala, gauzak errazago bilatzeko aukera izango dute erosleek. Honez gain, mugikorra egunero maiz erabiltzen den gailua denez eta haren aurrean denbora ugari igarotzen dugunez, ikusiko ez den kargadore bat izango du. Poltsa guztiz osotasun batera heltzeko, bezeroek giltzak lapurtzearen beldur badira, giltzak eusteko metodologia izango du soka moduko batez lotzeko.